

**Ley 13/2005, de 1 de julio, por la que se modifica el Código Civil en materia de derecho a contraer matrimonio**

BOE, nº. 157, de 2 de julio

**EXPOSICIÓN DE MOTIVOS**

I

La relación y convivencia de pareja, basada en el afecto, es expresión genuina de la naturaleza humana y constituye cauce destacado para el desarrollo de la personalidad, que nuestra Constitución establece como uno de los fundamentos del orden político y la paz social.

En consonancia con ello, una manifestación señalada de esta relación, como es el matrimonio, viene a ser recogida por la Constitución, en su artículo 32, y considerada, en términos de nuestra jurisprudencia constitucional, como una institución jurídica de relevancia social que permite realizar la vida en común de la pareja.

Esta garantía constitucional del matrimonio tiene como consecuencia que el legislador no podrá desconocer la institución, ni dejar de regularla de conformidad con los valores superiores del ordenamiento jurídico, y con su carácter de derecho de la persona con base en la Constitución.

Será la ley que desarrolle este derecho, dentro del margen de opciones abierto por la Constitución, la que, en cada momento histórico y de acuerdo con sus valores dominantes, determinará la capacidad exigida para contraer matrimonio, así como su contenido y régimen jurídico.

La regulación del matrimonio en el derecho civil contemporáneo ha reflejado los modelos y valores dominantes en las sociedades europeas y occidentales.

Su origen radica en el Código Civil francés de 1804, del que innegablemente trae causa el español de 1889.

En este contexto, el matrimonio se ha configurado como una institución, pero también como una relación jurídica que tan sólo ha podido establecerse entre personas de distinto sexo; de hecho, en tal diferencia de sexo se ha encontrado tradicionalmente uno de los fundamentos del reconocimiento de la institución por el derecho del Estado y por el derecho canónico.

Por ello, los códigos de los dos últimos siglos, reflejando la mentalidad dominante, no precisaban prohibir, ni siquiera referirse, al matrimonio entre personas del mismo sexo, pues la relación entre ellas

**Uztailaren 1eko 13/2005 Legea, Kode Zibila aldaraztekoa, ezkontzeko eskubidearen arloan**

EAO, 157. zk., uztailaren 2koa

**ZIOEN AZALPENA**

I

Bikotekideen arteko harremanak eta elkarbizitza maitasunean oinarritzen direnean, horiek giza izaeraren berezko adierazpenak besterik ez dira, nortasuna garatzeko bide garrantzitsuak izatearekin batera. Horregatik, gure Konstituzioaren arabera, ordena politikoaren eta gizartebakearen euskarrien artean koka daitezke halakoak.

Horrekin bat etorritik, harreman horien isla aipagarria da ezkontza bera, Konstituzioaren 32. artikulua jasotzen duena. Gure konstituzio-jurisprudentziari helduta, ezkontza gizarte-garrantzia duen erakunde juridikoa da, beraren bitartez gauzatzen baita bikotekideen arteko elkarbizitza.

Konstituzioak, beraz, ezkontza bermatzen du, eta, konstituzio-berme horren ondorioz, legegileak ezin dio erakundeari lepo eman. Era berean, legegileak ezin du ezkontza arautu, antolamendu juridikoaren balio gorenak alde batera utzita eta Konstituzioari helduta pertsonaren eskubide gisa duen izaera aintzat hartu gabe.

Egitan, Konstituzioak aukera zabalak eskaintzen ditu, eta legea izango da, aukera zabal horien artean, eskubidea garatuko duena. Lege horrek zehaztuko du, une historiko bakoitzean nagusi diren balioekin bat etorritik, zein gaitasun izan behar den ezkontzeko, eta zein izango diren ezkontza horren edukia eta araubidea.

Egungo zuzenbide zibilak ezkontza arautu duenetan, Europako eta Mendebaldeko gizarteetan nagusi diren eredu eta balioak islatu izan ditu.

Arauketa horren jatorria Frantziako 1804. urteko Kode Zibila da; horixe da, zalantza-izpirik gabe, Espainiako 1889. urteko kodearen uztarria.

Testuinguru horretan, ezkontza erakunde gisa itxuratu da. Itxuraketa horretan, kontuan hartu da ezkontzaren ondoriozko harreman juridikoak sexu desberdineko pertsonen artean bakarrik ezar daitezkeela. Tradizioaren arabera, sexudesberdintasun hori izan da estatuaren zuzenbideak eta zuzenbide kanonikoak erakunde onartzeko abiapuntuetatik bat.

Hori dela medio, azken bi mendeetako kodeek pentsamolde nagusia bereganatu zuten, eta, ondorenez, ez zuten zertan debekatu, ezta aipatu ere, sexu berdineko pertsonen arteko ezkontza; izan

en forma alguna se consideraba que pudiera dar lugar a una relación jurídica matrimonial.

Pero tampoco en forma alguna cabe al legislador ignorar lo evidente: que la sociedad evoluciona en el modo de conformar y reconocer los diversos modelos de convivencia, y que, por ello, el legislador puede, incluso debe, actuar en consecuencia, y evitar toda quiebra entre el Derecho y los valores de la sociedad cuyas relaciones ha de regular.

En este sentido, no cabe duda de que la realidad social española de nuestro tiempo deviene mucho más rica, plural y dinámica que la sociedad en que surge el Código Civil de 1889.

La convivencia como pareja entre personas del mismo sexo basada en la afectividad ha sido objeto de reconocimiento y aceptación social creciente, y ha superado arraigados prejuicios y estigmatizaciones.

Se admite hoy sin dificultad que esta convivencia en pareja es un medio a través del cual se desarrolla la personalidad de un amplio número de personas, convivencia mediante la cual se prestan entre sí apoyo emocional y económico, sin más trascendencia que la que tiene lugar en una estricta relación privada, dada su, hasta ahora, falta de reconocimiento formal por el Derecho.

Esta percepción no sólo se produce en la sociedad española, sino también en ámbitos más amplios, como se refleja en la Resolución del Parlamento Europeo, de 8 de febrero de 1994, en la que expresamente se pide a la Comisión Europea que presente una propuesta de recomendación a los efectos de poner fin a la prohibición de contraer matrimonio a las parejas del mismo sexo, y garantizarles los plenos derechos y beneficios del matrimonio.

## II

La Historia evidencia una larga trayectoria de discriminación basada en la orientación sexual, discriminación que el legislador ha decidido remover.

El establecimiento de un marco de realización personal que permita que aquellos que libremente adoptan una opción sexual y afectiva por personas de su mismo sexo puedan desarrollar su personalidad y sus derechos en condiciones de igualdad se ha convertido en exigencia de los ciudadanos de nuestro tiempo, una exigencia a la que esta ley trata de dar respuesta.

Ciertamente, la Constitución, al encomendar al legislador la configuración normativa del matrimonio, no excluye en forma alguna una regulación que delimite las relaciones de pareja de una forma diferente a la que haya existido hasta el momento, regulación que dé cabida a las nuevas formas de

ere, halakoen arteko harremanak ezin ziren inola ere izan ezkontzako harreman juridikoak.

Zernahi gisaz, legegileak ezin du bazterrean utzi ageri-agerikoa dena: gizartea bilakatu egiten da, elkarbizitza-eredu desberdinak eratu eta aitortzeko orduan, eta legegileak horren arabera jardun dezake, eta jardun behar du, zuzenbidea eta zuzenbide horrek arautu nahi dituen gizarte-balioak elkarrengandik urrundu ez daitezen.

Ildo horretatik, Espainiako gizarteerrealitatea, gaur egun, 1889. urteko Kode Zibilarren garaiko gizartea baino askoz aberatsagoa, anitzagoa eta dinamikoagoa da.

Sexu berdineko pertsonen bikotea osatu eta euren arteko elkarbizitza maitasunean oinarritzen dute, eta gizarteak hori gero eta gehiago aitortu eta onartzen du, ondo sustraitutako aurreiritziak eta estigmatizazioak gaindituz.

Egun zailtasunik gabe onartzen da, halako bikotekideen arteko elkarbizitzaren bidez, pertsonakopuru handi baten nortasuna garatzea; elkarbizitza horri esker, pertsona horiek elkarri emoziozko laguntza eta laguntza ekonomikoa ematen diote. Orain arte, horren garrantzia harreman pribatu hertsietan agortu izan da, zuzenbideak ez baitzuen horren inguruan aitortpen formalik egiten.

Horretaz jabetu dena ez da izan Espainiako gizartea bakarrik. Eremu zabalagoetan ere hori berori gertatu da. Horixe atzeman daiteke, esate baterako, Europako Parlamentuak 1994. urteko otsailaren 8an emandako ebazpenean; ebazpen horretan beren beregi eskatzen zaio Europako Komisionari, horrek gomendio-proposamena egin dezan. Gomendio horren ondorioz, ezabatu egingo da sexu berdineko bikotekideek elkarrekin ezkontzeko duten debekua, eta ezkontzaren eskubide eta onura guztiak bermatuko zaizkie bikotekide horiei.

## II

Historiak argiro-argiro erakusten du bereizkeria-ibilbide luzea egin dela sexu-orientazioan oinarrituta. Legegileak, ordea, bereizkeria hori ezabatzea erabaki du.

Horretarako, nor bere burua garatzeko esparru onartu beharra dago; esparru horretan, norbaitzuek askatasunez hartzen badute sexu-aukera eta maitasun-aukera zehatz bat, euren sexu bereko pertsonen alde, orduan haiei euren nortasuna eta eskubideak garatzea ahalbidetu behar zaie, betiere berdintasun-baldintzetan. Hori gaur egungo herritarren eskakizun bilakatu da, eta lege honek eskakizun horri erantzun nahi dio.

Zinez, Konstituzioak legegileari agindua ematen dionean ezkontza arau bidez itxuratzeko, ez du baztertzeko, inola ere, arauketa horrek beste modu batera mugatzea bikotekideen arteko harremanak, nahiz eta arauketa berri hori orain arte egon izan den horretatik aldentu. Arauketa berrian, maitasun-

relación afectiva.

Pero, además, la opción reflejada en esta ley tiene unos fundamentos constitucionales que deben ser tenidos en cuenta por el legislador.

Así, la promoción de la igualdad efectiva de los ciudadanos en el libre desarrollo de su personalidad (artículos 9.2 y 10.1 de la Constitución), la preservación de la libertad en lo que a las formas de convivencia se refiere (artículo 1.1 de la Constitución) y la instauración de un marco de igualdad real en el disfrute de los derechos sin discriminación alguna por razón de sexo, opinión o cualquier otra condición personal o social (artículo 14 de la Constitución) son valores consagrados constitucionalmente cuya plasmación debe reflejarse en la regulación de las normas que delimitan el estatus del ciudadano, en una sociedad libre, pluralista y abierta.

Desde esta perspectiva amplia, la regulación del matrimonio que ahora se instaura trata de dar satisfacción a una realidad palpable, cuyos cambios ha asumido la sociedad española con la contribución de los colectivos que han venido defendiendo la plena equiparación en derechos para todos con independencia de su orientación sexual, realidad que requiere un marco que determine los derechos y obligaciones de todos cuantos formalizan sus relaciones de pareja.

En el contexto señalado, la ley permite que el matrimonio sea celebrado entre personas del mismo o distinto sexo, con plenitud e igualdad de derechos y obligaciones cualquiera que sea su composición.

En consecuencia, los efectos del matrimonio, que se mantienen en su integridad respetando la configuración objetiva de la institución, serán únicos en todos los ámbitos con independencia del sexo de los contrayentes; entre otros, tanto los referidos a derechos y prestaciones sociales como la posibilidad de ser parte en procedimientos de adopción.

Asimismo, se ha procedido a una imprescindible adaptación terminológica de los distintos artículos del Código Civil que se refieren o traen causa del matrimonio, así como de una serie de normas del mismo Código que contienen referencias explícitas al sexo de sus integrantes.

En primer lugar, las referencias al marido y a la mujer se han sustituido por la mención a los cónyuges o a los consortes.

En virtud de la nueva redacción del artículo 44 del Código Civil, la acepción jurídica de cónyuge o de consorte será la de persona casada con otra, con independencia de que ambas sean del mismo o de

harreman berriek euren tokia izan behar dute.

Gainera, lege honetan islatutako aukerak Konstituzioan bertan ditu bere oinarriak, eta legegilea behartuta dago oinarri horiek aintzakotzat hartzera.

Oinarriok dira, besteak beste, herritarren arteko berdintasuna eragingarria izatea, herritarrok euren nortasuna garatu behar dutenean (Konstituzioaren 9.2 eta 10.1 artikulua); askatasuna bermatzea, elkarbizitzaren formei dagokienez (Konstituzioaren 1.1 artikulua); eta, eskubideak egikaritzeko orduan, benetako berdintasun-esparrua ezartzea, inolako bereizkeriarik egin gabe, sexu, iritzi nahiz bestelako baldintza pertsonal nahiz sozialak aintzat hartuta (Konstituzioaren 14. artikulua). Horiek guztiak Konstituzioan onartutako balioak dira, eta, ondorenez, gizarte aske, anitz eta ireki batean, herritarren estatusa mugatzen duten arauetan islatu behar dira.

Ikuspegi zabal horren barruan, ezkontzaren arauketa berri honek asebate nahi du aise atzeman daitekeen errealtate. Espainiako gizarteak berak errealtate horren aldaketak bereganatu ditu, eta, horretan, laguntza erabakigarria eman dute talde zehatz batzuek, talde horiek eskubideen arteko parekaketa osoa defendatu izan baitute guztiontzat, norberaren sexu-orientazioa edozein izanda ere. Errealtate horretan beharrezkoa da esparru berri bat eratzea, esparru horretan guztiontzat eskubide eta betebeharrak finka daitezen, nor bere bikoteharremanak formalizatzen dituen.

Aipatu testuinguru horren barruan, legeak onartzen du sexu berdineko nahiz desberdineko pertsonak elkarrekin ezkontzea; ezkontideen sexua edozein izanik ere, ezkontideen eskubideak eta betebeharrak oso-osokoak eta berdinak izango dira.

Ondorenez, ezkontzaren ondoreei euren osotasunean eutsi zaie, erakundearen itxuraketa objektiboa aldatu gabe. Ondore horiek berberak izango dira eremu guztietan, ezkongaien sexua zein den kontuan hartu gabe. Ondoreon artean aipa daitezke, hala nola, eskubide eta prestazio sozialak, bai eta adopzio-prozeduretan alderdi izateko aukera ere.

Era berean, Kode Zibilaren zenbait artikulua nahitaez aldatu behar izan dira horien terminologia egokitzeko, artikulua horiek ezkontza aipatzen baitute edo ezkontzaren ondoriozkoak baitira. Orobat esan behar kode berberaren beste arau batzuei buruz, horiek esanbidezko aipamenak egiten baitituzte ezkontideen sexuari buruz.

Lehenengo eta behin, senar-emazteei buruzko aipamenen orde, ezkontideen gaineko aipamenak jarri dira.

Kode Zibilaren 44. artikulua idazkera berria duenez gero, ezkontide hitzaren esanahi juridikoa izango da beste norbaitekin ezkontuta dagoen pertsona, ezkontuak sexu berdinekoak izan nahiz

distinto sexo.

Subsiste no obstante la referencia al binomio formado por el marido y la mujer en los artículos 116, 117 y 118 del Código, dado que los supuestos de hecho a que se refieren estos artículos sólo pueden producirse en el caso de matrimonios heterosexuales.

Por otra parte, y como resultado de la disposición adicional primera de la presente ley, todas las referencias al matrimonio que se contienen en nuestro ordenamiento jurídico han de entenderse aplicables tanto al matrimonio de dos personas del mismo sexo como al integrado por dos personas de distinto sexo.

#### **Artículo único.**

Modificación del Código Civil en materia de derecho a contraer matrimonio.

El Código Civil se modifica en los siguientes términos:

**Uno.** Se añade un segundo párrafo al artículo 44, con la siguiente redacción:

“El matrimonio tendrá los mismos requisitos y efectos cuando ambos contrayentes sean del mismo o de diferente sexo.”

**Dos.** El artículo 66 queda redactado en los siguientes términos:

“Artículo 66.

Los cónyuges son iguales en derechos y deberes.”

**Tres.** El artículo 67 queda redactado en los siguientes términos:

“Artículo 67.

Los cónyuges deben respetarse y ayudarse mutuamente y actuar en interés de la familia.”

**Cuatro.** El primer párrafo del artículo 154 queda redactado en los siguientes términos:

“Los hijos no emancipados están bajo la potestad de sus progenitores.”

**Cinco.** El primer párrafo del artículo 160 queda redactado en los siguientes términos:

“Los progenitores, aunque no ejerzan la patria potestad, tienen el derecho de relacionarse con sus hijos menores, excepto con los adoptados por otro o conforme a lo dispuesto en resolución judicial.”

**Seis.** El párrafo 2.º del artículo 164 queda redactado en los siguientes términos:

“2.º Los adquiridos por sucesión en que uno o ambos de los que ejerzan la patria potestad hubieran sido justamente desheredados o no hubieran podido heredar por causa de indignidad, que serán administrados por la persona designada por el causante y, en su defecto y sucesivamente, por el

desberdinekoak izan.

Nolanahi den ere, senar-emazteek osatutako bikoteari buruzko aipamena bere horretan geratu da kodearen 116, 117 eta 118. artikuluetan; izan ere, artikuluko horiek aipatzen duten egitezko kasua gerta dadin, nahitaezkoa da ezkontza heterosexuala izatea.

Bestalde, eta lege honen lehenengo xedapen gehigarriaren ondorioz, gure antolamendu juridikoan ezkontzari buruz egiten diren aipamen guztiak aplikagarriak izango dira, ezkontideak sexu berdinekoak direnean, eta sexu desberdinekoak direnean ere bai.

#### **Artikulu bakarra.**

Kode Zibila aldaraztea, ezkontzeko eskubidearen arloan

Kode Zibila honetara aldarazten da:

**Bat.** 44. artikuluari bigarren lerrokada gehitu zaio, eta lerrokada horren idazkera hau da:

“Ezkontzak betekizun eta ondore berberak izango ditu, bi ezkongaiak sexu berdinekoak izan zein desberdinekoak izan.”

**Bi.** 66. artikulua honako idazkera hau izango du:

“66. artikulua

Ezkontideek eskubide eta eginbehar berberak dituzte.”

**Hiru.** 67. artikulua honako idazkera hau izango du:

“67. artikulua

Ezkontideek begirunea eta laguntza eman beharko dizkiote elkarri, eta familiaren intereserako jardun behar dute.”

**Lau.** 154. artikulua lehenengo lerrokadak honako idazkera hau izango du:

“Seme-alaba emantzipatugabeak euren gurasoen ahalpean daude.”

**Bost.** 160. artikulua lehenengo lerrokadak honako idazkera hau izango du:

“Gurasoek, nahiz eta guraso-ahala egikaritu ez, eskubidea dute, euren seme-alaba adingabeekin harremanak izateko, salbu eta beste inork semealabok adoptatu dituenean edo epailearen ebazpenak besterik xedatu duenean.”

**Sei.** 164. artikulua 2. paragrafoak honako idazkera hau izango du:

“2. Oinordetza bidez eskuraturiko ondasunak, baldin eta bata, bestea edo bi-biak oinordetza horretan zuten jaraungabetuak izan badira edo ezduintasun-arrazaia dela-bide ezin badira jaraunse izan. Ondasun horiek administratuko ditu kausatzaileak izendaturiko pertsonak, eta, horrelakorik izan ezean,

otro progenitor o por un administrador judicial especialmente nombrado.”

**Siete.** El apartado 4 del artículo 175 queda redactado en los siguientes términos:

“4. Nadie puede ser adoptado por más de una persona, salvo que la adopción se realice conjunta o sucesivamente por ambos cónyuges.

El matrimonio celebrado con posterioridad a la adopción permite al cónyuge la adopción de los hijos de su consorte.

En caso de muerte del adoptante, o cuando el adoptante sufra la exclusión prevista en el artículo 179, es posible una nueva adopción del adoptado.”

**Ocho.** El apartado 2 del artículo 178 queda redactado en los siguientes términos:

“2. Por excepción subsistirán los vínculos jurídicos con la familia del progenitor que, según el caso, corresponda:

1.º Cuando el adoptado sea hijo del cónyuge del adoptante, aunque el consorte hubiere fallecido.

2.º Cuando sólo uno de los progenitores haya sido legalmente determinado, siempre que tal efecto hubiere sido solicitado por el adoptante, el adoptado mayor de doce años y el progenitor cuyo vínculo haya de persistir.”

**Nueve.** El párrafo segundo del artículo 637 queda redactado en los siguientes términos:

“Se exceptúan de esta disposición las donaciones hechas conjuntamente a ambos cónyuges, entre los cuales tendrá lugar aquel derecho, si el donante no hubiese dispuesto lo contrario.”

**Diez.** El artículo 1.323 queda redactado en los siguientes términos:

“Artículo 1.323.

Los cónyuges podrán transmitirse por cualquier título bienes y derechos y celebrar entre sí toda clase de contratos.”

**Once.** El artículo 1.344 queda redactado en los siguientes términos:

“Artículo 1.344.

Mediante la sociedad de gananciales se hacen comunes para los cónyuges las ganancias o beneficios obtenidos indistintamente por cualquiera de ellos, que les serán atribuidos por mitad al disolverse aquella.”

**Doce.** El artículo 1.348 queda redactado en los siguientes términos:

“Artículo 1.348.

Siempre que pertenezca privativamente a uno de los cónyuges una cantidad o crédito pagadero en cierto número de años, no serán gananciales las sumas que se cobren en los plazos vencidos durante el

eta ondoz ondo, beste gurasoak edo epaileak bereziki izendaturiko administratzaileak.”

**Zazpi.** 175. artikularen 4. lerrokadak honako idazkera hau izango du:

“Pertsona batek baino gehiagok ezin dute batera inor adoptatu, salbu eta bi ezkontideek, batera nahiz ondoz ondo, adopzioa egiten dutenean.

Adopzioaren osteko ezkontzak ezkontideari ahalbidetzen dio bere ezkontidearen semealabak adoptatzea.

Adopzio-hartzailea hiltzen denean edo adopzio-hartzaile horri 179. artikuluan ezarritako baztertea gertatzen zaionean, adoptatua berriz adopta daiteke.”

**Zortzi.** 178. artikularen 2. paragrafoak honako idazkera hau izango du:

“Salbuespenez, euren horretan diraute kasuan kasuko gurasoaren familiarengandiko loturok:

1) Adoptatua adopzio-hartzailearen ezkontidearen semea edo alaba denean, ezkontide hori hilda egon arren.

2) Legearen bidez guraso batengandiko semealabatasuna bakarrik zehaztu denean, baldin eta ondore hori eskatu badu adopzio-hartzaileak, hamabi urtekoa baino nagusiagoa den adoptatua edo loturon iraupena nahi duen gurasoak.”

**Bederatzi.** 637. artikularen bigarren lerrokadak honako idazkera hau izango du:

“Xedapen horretatik salbuetsita geratzen dira bi ezkontideei batera egindako dohaintzak; ezkontideen artean gehiagotzeko eskubidea gertatuko da, dohaintza-emalleak ez badu aurkakorik xedatu.”

**Hamar.** 1323. artikulua honako idazkera hau izango du:

“1323. artikulua

Ezkontideek, edozein tituluren bidez, ondasun eta eskubideak eskualda diezazkiokete elkarri, eta euren artean edozein motatako kontratuak egin ditzakete.”

**Hamaika.** 1344. artikulua honako idazkera hau izango du:

“1344. artikulua

Irabazpidezko sozietatearen bidez, erkide egiten dira ezkontideentzat bata nahiz besteak lorturiko irabazi edo etekinak; ezkontza desegitean, horiek erdi bana eratzikiko zaizkie bi-bioi.”

**Hamabi.** 1348. artikulua honako idazkera hau izango du:

“1348. artikulua

Urte-kopuru zehatzean kobratuko den kopuru edo kreditua ezkontide batena bakarrik bada ondasun pribatibo gisa, ez dira irabazpidezkoak izango ezkontza bitartean mugaeguneraturiko epeetan

matrimonio, sino que se estimarán capital de uno u otro cónyuge, según a quien pertenezca el crédito.”

**Trece.** El artículo 1.351 queda redactado en los siguientes términos:

“Artículo 1.351.

Las ganancias obtenidas por cualquiera de los cónyuges en el juego o las procedentes de otras causas que eximan de la restitución pertenecerán a la sociedad de gananciales.”

**Catorce.** El artículo 1.361 queda redactado en los siguientes términos:

“Artículo 1.361.

Se presumen gananciales los bienes existentes en el matrimonio mientras no se pruebe que pertenecen privativamente a uno de los dos cónyuges.”

**Quince.** El párrafo 2.º del artículo 1.365 queda redactado en los siguientes términos:

“2.º En el ejercicio ordinario de la profesión, arte u oficio o en la administración ordinaria de los propios bienes.

Si uno de los cónyuges fuera comerciante, se estará a lo dispuesto en el Código de Comercio.”

**Dieciséis.** El artículo 1.404 queda redactado en los siguientes términos:

“Artículo 1.404.

Hechas las deducciones en el caudal inventariado que prefijan los artículos anteriores, el remanente constituirá el haber de la sociedad de gananciales, que se dividirá por mitad entre los cónyuges o sus respectivos herederos.”

**Diecisiete.** El artículo 1.458 queda redactado en los siguientes términos:

“Artículo 1.458.

Los cónyuges podrán venderse bienes recíprocamente.

#### **Disposición adicional primera.**

Aplicación en el ordenamiento.

Las disposiciones legales y reglamentarias que contengan alguna referencia al matrimonio se entenderán aplicables con independencia del sexo de sus integrantes.

#### **Disposición adicional segunda.**

Modificación de la Ley de 8 de junio de 1957, sobre el Registro Civil.

**Uno.** El artículo 46 queda redactado en los siguientes términos:

“Artículo 46.

La adopción, las modificaciones judiciales de capacidad, las declaraciones de concurso, ausencia o fallecimiento, los hechos relativos a la nacionalidad o vecindad y, en general, los demás inscribibles para

kobratzen diren kopuruak; kreditua zein ezkontiderena izan eta berorren kapitaltzat hartuko dira kopuruok.”

**Hamahiru.** 1351. artikulua honako idazkera hau izango du:

“1351. artikulua

Irabazpidezko sozietatearenak izango dira ezkontideetatik edozeinek jokoan lortzen dituen irabaziaz, bai eta beste edozein arrazoiren bidez lortzen dituenak ere, horiek itzuli beharrik ez badago.”

**Hamalau.** 1361. artikulua honako idazkera hau izango du:

“1361. artikulua

Ezkontzan dauden ondasunak irabazpidezkoak direla uste da, bi ezkontideetatik bati ondasun pribatibo gisa dagozkiola frogatzen ez den bitartean.”

**Hamabost.** 1365. artikulua 2. paragrafoak honako idazkera hau izango du:

“2. Lanbide, erti edo ogibidean modu arruntean aritzean, edo ondasun pribatiboak modu arruntean administratzean.

Ezkontideetatik bat merkataria bada, Merkataritza Kodean xedatutakoa beteko da.”

**Hamasei.** 1404. artikulua honako idazkera hau izango du:

“1404. artikulua

Inbentariopeko ondasunetan aurreko artikuluek finkaturiko kenkariak egin eta gero, gerakinak irabazpidezko sozietatearen hartzekodun osatuko du, eta gerakin hori erdibanatu egingo da ezkontideen artean edo euren jaraunsleen artean.”

**Hamazazpi.** 1458. artikulua honako idazkera hau izango du:

“1458. artikulua

Ezkontideek ondasunak sal diezazkiokete elkarri.

#### **Lehenengo xedapen gehigarria.**

Antolamenduan aplikatzea

Ezkontza aipatzen duten lege- nahiz erregelamendu-xedapenak aplikagarriak izango dira ezkongaien sexua edozein izanik ere.

#### **Bigarren xedapen gehigarria.**

1957. urteko ekainaren 8ko Legea, Erregistro Zibilar buruzkoa, aldaraztea

**Bat.** 46. artikulua honako idazkera hau izango du:

“46. artikulua

Adopzioa, gaitasunaren aldaketa judizialak, konkurto, absentzia edo heriotzari buruzko adierazpenak, naziotasunarekin edo auzotasunarekin zerikusia duten egitateak, eta,

los que no se establece especialmente que la inscripción se haga en otra Sección del Registro, se inscribirán al margen de la correspondiente inscripción de nacimiento.

Cuantos hechos afectan a la patria potestad, salvo la muerte de los progenitores, se inscribirán al margen de la inscripción de nacimiento de los hijos.”

**Dos.** El artículo 48 queda redactado en los siguientes términos:

“Artículo 48.

La filiación paterna o materna constará en la inscripción de nacimiento a su margen, por referencia a la inscripción de matrimonio de los padres o por inscripción del reconocimiento.”

**Tres.** El artículo 53 queda redactado en los siguientes términos:

“Artículo 53.

Las personas son designadas por su nombre y apellidos, correspondientes a ambos progenitores, que la Ley ampara frente a todos.”

#### **Disposición final primera.**

##### **Título competencial.**

Esta ley se dicta al amparo de la competencia exclusiva del Estado en materia de legislación civil reconocida por el artículo 149.1.8.<sup>a</sup> de la Constitución española sin perjuicio de la conservación, modificación y desarrollo por las Comunidades Autónomas de los derechos civiles, forales o especiales, allí donde existan y de las normas aprobadas por éstas en desarrollo de sus competencias en Derecho Civil.

#### **Disposición final segunda.**

##### **Entrada en vigor.**

La presente ley entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del Estado.

orokorrean, inskribatzeko modukoak diren gainerakoak, jaiotza-inskripzio egokiaren orribazterrean inskribatuko dira, horien inskripzioa Erregistroko beste atalen batean egin behar dela beren beregi ezartzen ez bada.

Guraso ahalaren gain eragina duten egitateak, gurasoen heriotza izan ezik, seme-alaben jaiotza-inskripzioaren orri-bazterrean inskribatuko dira.”

**Bi.** 48. artikulua honako idazkera hau izango du:

“48. artikulua

Aitarengandiko edo amarengandiko semealabatasuna jaiotza-inskripzioan, eta, zehatzago, horren orri-bazterrean, jasoko da, gurasoen ezkontza-inskripzioari buruzko aipamena eginda edo aitortpena inskribatuta.”

**Hiru.** 53. artikulua honako idazkera hau izango du:

“53. artikulua

Pertsonak euren izenarekin eta bi gurasoen abizenekin izendatzen dira; legeak guztien aurrean babesten ditu izen-abizenok.”

#### **Azken xedapenetatik lehenengoa.**

##### **Eskumen-titulua**

Lege hau Espainiako Konstituzioak 149.1.8 artikuluan estatuari aitortzen dion eskumen eskusiboaren itzalpean ematen da; eskumen eskusibo horrek ez dio kalterik egiten autonomia-erkidegoek zuzenbide zibilak, forudunak nahiz bereziak, irauterazi, aldatu eta garatzeari, halakoak direnetan, ezta haiek zuzenbide zibilaren arloan dituzten eskumenak garatzeko onetsitako arauak ere.

#### **Azken xedapenetatik bigarrena.**

##### **Indarrean jartzea**

Lege hau indarrean jarriko da, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean.